

## **GU SORTU GINEN ENBOR BERETIK SORTUKO DIRA BESTEAK**

Badira hainbat urte Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa sortu zela. 0-3 urte arteko haurren heziketaz arduratzen den hezkuntza proiektua, haur eskola alegia. Urtetan zehar handitzen eta indartzen joan den proiektua izanik, 2011ko irailean eraikin berria estreinatu ahal izan genuen. Hor sortu ziren irakasle on artean eraikin berriari izena jartzeko premiak. Gainontzeko eraikinek bai baitzuten izena (Haurtzaro Ttiki, Iturburu, Harri Gain,...) eta nola utzi eraikin berria izenik gabe!!!!

Hau dela eta, gure artean ideia eta izen desberdinak ateratzen hasi ziren. TTur-TTur euskaltzaleen bilgunearekin ere harremanetan jarri ginen eta azkar prestatu zuten oiartzueraz haur hizkuntzarekin loturiko hitz zerrenda txukuna (haur hizketarekin loturiko hitzak, garai bateko herriko eskolen izenak,...). Gaia ordea, bere horretan geratu zen.

2013ko urrian, berriz heldu genion gaiari. Derrigor eraikin berriak izena behar baitzuen. Udaleko eta Haurtzaro Ikastolako ordezkariekin osatzen dugun Zuzendaritza Batzordean aurkeztu genuen gure nahia eta hemen, proposamen berri bat atera zen; eraikinari izena jartzeaz gain, proiektuari berari ere izen bat emateko garaia zela ikusi zen. Hau da, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak, 0-3 urte bitarteko haurrei eskaintzen dien hezkuntza proiektuari berari izena jartzea. Ideia berri honekin, argi ikusi genuen jada ez zela eraikin soil bati izena ematea, haratago zihoan kontua zela baizik, eta gure proiektua indartu eta izendatuko zuen pausu berri bat zela.

Hasi ginen ba berriz ere martxan; TTur-TTurreko kideek osaturiko zerrenda berreskuratu, lankideen artean proposamenak jaso, ideiak bildu,... Guztien artean, azkenik, ideia nagusi batek hartu zuen indarra, ESANAHIK. Izenak eta izanak. Zuzendaritza Batzordeak ere hau egoki ikusi zuen.

Orduan hasi ginen esanahi global baten inguruan bueltaka. Batetik, haurrak bere hazte eta hezte prozesuan egin ohi duen ibilbide hori islatu nahi genuen. Bestetik, sinbolizazio hau naturarekin lotzea zen gure nahia. Eta nola ez, gure herriarekin. Azken finean, Oiartzungo identitate propioarekin lotuko zuen zerbait. Hau dela eta, Oiartzungo erreka eta iturrien izenak biltzen hasi ginen. Honekin, bai errekek eta bai haurrak sortzen direnetik egiten duten bidea metafora gisa erabiliz. Azken finean, ura, erreka sortzen denetik, ibai bihurtzen den arte, handitzen doa bide baten barruan beti ere. Haurrak ere, helduak bide lagun izanta, hazten doaz bere bide propioan.

Honetarako, bi mapa toponimiko erabili genitun, OBIE taldeko Iñaki Arbelaitzek, Nikolas Etxebestek eta Joxe Manuek Lekuonak 1988an egindako *Oiartzungo Bailarako*

Mapaeta 1999an Ikermapek egindako *Oiartzun* mapa. Honela, Oiartzungo erreka eta iturrien zerrenda bat osatu genuen.

Zerrenda honetatik gustukoak genituen izenak, bide esanguratsua zuten errekek,... bereizteari ekin genion. Honetan genbiltzala, beste ideia berri bat sortu zen. Erreka bat izan ordez, ur sorleku eta historiaz betetako leku batek ez ote zuten ba gure nahia indartu eta jantziko???? Orduan, URMENDI mendi kaskoarekin egin genuen topo. Honek, izena eta izana biltzen zituen:

- Izenari dagokionez, Urmendi, ura eta mendia. Oiartzun oso ongi definitzen duena. Gure herri hau mendiz eta urez inguraturiko bailara baita.
- Haurraren ibilbidearekin loturik, sorleku emankorra da Urmendi. Ergoien auzoan Zaldin eta Marimotx artean dagoen mendi-kaskoa da, Oialeku azpian Pilotasoro ingurua. Oso leku aberats eta emankorra, erreka zidorren sorlekua. Aurrerantz so eginez, bizitzaren abiapuntua eta hastapena.
- Historiaz betea; bertan baitago Urmendiko tunela. Garai batean Artikutzatik (Elamatik) zetorren Zorrolako ferrokarrila handik pasatzen zen. Berriz ere, oiartzuarron identitatearekin lotura.

Haur eskolako irakasle klaustroak izen hau aukeratu zuten eta Zuzendaritza Batzordeak ere onespena eman zion. Bagenuen beraz, gure proiektuarentzat eta eraikin berriarentzat izena URMENDI!!!!!!

Ez ziren hemen bukatu ordea gure lanak. Erreka zerrenda luzea genuen eskura eta honekin ere, ideia interesgarri bezain polita sortu zen gure artean. Urmendi eraikineko gelak zergatik ez erreka izenez izendatu???? Berriz erreka zerrenda hau mahai gainean jarri eta hor hasi ginen irakasle klaustroan aukeraketa lanetan, ez baitzuen edozein izenek edozein geletarako balio!!!! Orain ere, esanahiaren jiran gu.

Hona hemen:

- Zuzendaritza bulegoari, **URAUNDI ERREKA**. Ez baitira bertan kontu txikiak mugitzen!!!! Gainera, Ergoien dagoen erreka honek Urmendiko urak eramaten ditu.
- Irakasle gelari, **EPELE ERREKA**. Gure artean hainbat gai desberdinen inguruan gogoetak egiteko txokoa baita. Ergoien dagoen erreka da.
- Sukaldeari, **TORNOLA ERREKA**. Hemengo urak hornitzen ditu Oiartzungo etxeak. Eta sukaldeko jaki goxoek hornitzen dituzte gure gelak. Ergoien dago.
- Biltegiari, **ARDITTURRI ERREKA**. Kobazulo kontzeptuarekin lotuta. Ergoien dago.
- Material gelari, **ORTADI ERREKA**. Iturriotzen dago.

- Garbiketa gelari, **GOBARA ERREKA**. Gobara zen garai batean emakumeek askara nahiz errekarara arropa garbitzera joateko buru gainean eramaten zuten pila. Gurutzen dago.
- **GORRITXO ERREKA**. 2 urtekoen gela. Ergoienen dago, Aiako Harriaren azpialdean.
- **SAROBEXAR ERREKA**. 2 urtekoen gela. Iturriotzen dago, Ozentzio ermitaren azpialdean.
- **ILLARRIZU ERREKA**. 2 urtekoen gela. Illarrizu proiektu guztiari jartzeko izen hautagaietako bat zen, nahiko harrera ona izan zuena. Ergoienen dago, Errenga mendiaren azpian, Lesakako mugetan sortzen da. Tornola errekarari ematen dizkio urak.
- **TXALAKA ERREKA**. 2 urtekoena hau ere. Iturriotzen dago.
- **ITTURROLA ERREKA**. 2 urtekoena. Ergoienen dago. Bianditz azpian, Exkax baino lehen dagoen iturria da. Hemengo urek sortzen duten erreka Oiartzun eta Goizueta arteko muga naturala da (Nafarroa eta Gipuzkoa banatzen ditu). Exkaxetik, Berdabion barrena Añarbeko urtegiara doana. Itturrola proiektu guztiari izena jartzeko izen hautagaietako bat zen; harrera ona izan zuen.
- **ZORROLAKO ERREKA**. Ertainen gela (1-2 urte). Karrikan dago.
- **BEINTXIPI ERREKA**. Ertainen gela (1-2 urte). Ergoien auzoan dagoen erreka da.
- **OLAXAR ERREKA**. Ergoienen dago eta ertainen gela da hau ere.
- **ZIARA ERREKA**. Iturriotzen dago eta ertainen gela da.
- **ERAIN ERREKA**. Sehasken gelarako aukeraturiko izena (0-1 urte). Haur txikienean sehaskak "eragin" egiten direlako Ergoienen dago hau ere.
- **LEUN ERREKA**. Sehaska gela (0-1 urte). Haur txikienean leuntasunarekin eta goxotasunarekin loturik. Ergoienetik datorren erreka.

Haurra ardatz izanik, ezin ahaztu nondik gatozen, nongoak garen eta nora goazen!!!!  
Mikel Laboa zenaren *IZARREN HAUTSA* abestiak dion bezala:

*...naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea,  
Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak  
Borroka hortan iraungo dute zuhaitz adaska gazteak  
Bere aukeren jabe eraikiz eta erortzean berriro jaikiz  
Ibiltzen joanen direnak...*

Urmendi Haur Eskolako zuzendaritza taldeko kideak  
Naiara Arbelaitz eta Ibintzalragorri